


# Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R A

1996ko azaroak 22

Usurbil, 8. Zenbakia



**ZOZKETAREN ARIAN  
SOLDADUSKA ALBISTE**



**HILDAKOAK**



1996-11-14  
**Maria Mendizabal Urdanpilleta** 88 urte.  
 Goi-alde etxea, Kalezar.

1996-11-19  
**Felix Manterola Eizmendi**  
 58 urte.  
 Olarriondo

**JAIOTZAK**

**Xabier Rekondo Salsamendi**  
 (96-11-07)  
 Kaleberri



**EZKONTZAK**

**Elixabete Urdangarin Aizpurua** (Txokoalde)  
 eta  
**Iñaki Aranburu Lasa** (Zizurkil)  
 (96-11-16)

**Hemendik aurrera jaiotza, ezkontza edota hildakoen argazkiak argitaratu nahi badituzue, gurekin harremanetan jarri zaitezkete.**



**Zorionak Baleriano!**

Azaroaren 27ko partez zorionik beroenak opa dizkizugu zure **100. urteurrenean**. Ez du edonorrek mendea harrapatzen!


**Bai, esan?**

- |                           |          |                              |          |
|---------------------------|----------|------------------------------|----------|
| • UDALA                   | 34 19 51 | • TAXI GELTOKIA              | 36 21 78 |
| • UDALZAINGOA             | 36 11 12 | • D.Y.A.                     | 46 46 22 |
| • ANBULATEGIA             | 36 20 13 | • GURUTZE GORRIA             | 27 22 22 |
| • UDARREGI IKASTOLA       | 36 12 16 | • GURE- PAKEA EGOITZA        | 37 32 28 |
| • AGERIALDE IKASTETXEA    | 36 38 85 | • GURE-ELKARTEA EGOITZA      | 37 17 51 |
| • OIARDO KIROLDEGIA       | 37 24 98 | • ARRATE EGOITZA             | 36 63 40 |
| • ZUMARTE MUSIKA ESKOLA   | 37 15 94 | • EUSKO TREN INFORMAZIOA - - | 47 09 76 |
| • ETUMETA AEK EUSKALTEGIA | 37 20 01 | • NOAUA! ALDIZKARIA          | 36 03 21 |



**USURBILGO UDALA**  
 Aldizkari honek Usurbilgo Udalaren laguntza jaso du

**Dagoeneko 242 usurbildar bazkide ditu Noaua!-k**  
**Zu ere egin zaitez bazkide!**



**HERRIKO DENDA ETA ZERBITZUAK ERABILI**

## Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

**Argitaratzailea:** Noaua! Kultur Elkartea.  
Kale Nagusia, 27 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)  
Tlf. (943) 36 03 21.

**Zuzendaria:** Olatz Altuna. **Kazetariak:**  
Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Garikoitz Udabe.

**Kolaboratzaileak:** Pedro Mari Matxain, Nere  
Amenabar, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki  
Labaka, Iratxe Begiristain, Begoña Zubiria,  
Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako  
Agudo, Alfonso Vidal eta Nieves Aranburu.

**Administrazioa:** Arantxa Usarralde, Aitor  
Pikabea eta Nerea Kamino. **Erredakzio**  
**Kontseilua:** Olatz Altuna, Garikoitz Udabe,  
Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia  
Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz,  
Mertxe Olaizola.

**Makefazioa:** Susana Martin. **Argazkia:**  
Joxe Antonio Labaien, Juan Luis Izeta.  
**Informatika:** Pili Lizaso. **Banaketa:** Mertxe  
Jimenez, Txelo Vidal eta Iker Muguruza.  
**Tirada:** 2.000 ale. **Sukaldaria:** Joxe Mari  
Sarasola

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818


**Inprimategia:** Antza, Industrialdea 1 - 2,  
20.160 Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez du bere  
gain hartzen aldizkarian adierazitako esa-  
men eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

2. **Gazi-Goza-Geza** (jaiotzak, ezkontzak, heriotzak)
4. **Zer irizten?** (Eustakio Arrojeria)  
**Ika-mika** (gutunak)
5. **Berriketan** (Balentin Aldalur)  
**Txirrikitutik** (argazki albistea)
- 6-7. **Kalejiran** (auzoak)
8. **Herorrek esan** (inkesta)
9. **Pil-pilean** (Xabier Ezkerrari elkarrizketa)
- 10-11. **Erreportaia** (Organuaren urteurrena)
- 12-13. **Porrusalda** (berri laburrak)
14. **Izerdi patsetan** (kirolak)
15. **Herriko taldeak** (Intsumiso taldea)
16. **Soldaduskarako zozketa**
17. **Lehiaketa/Majerako kondarrak**
- 18-19. **Agenda/Komikia** ( )

Zorionak musikari  
guztioi! Urtero beza-  
la azaroaren 22a,  
Santa Zezili eguna  
iritsi da. Musikaz  
gozatzeko aukera  
izango da asteburu  
honetan, bai!  
Ekitaldien berri gure  
agendan topatuko  
duzue.



Argazkia: Zumarte



## TABERNA

Pintxo bereziak  
eta  
giro aparta

Irazu kalea, 9  
Tlf: 36 02 17

## ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009




GENERALI  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

EDIZIÓ-ON



P-Z-EREN

MOTA GUZTETAKO ERROTULOAK

# Zer irizten?



**Eustakio Arrojeria**

## Intsumisioa, aukera bat

**O**bjektzioa eta intsumisioa soldadutzarekin edo armekin lotzen diren kontzeptuak baldin badira ere, ezin genezake

esparru horietara mugatu. Nolabait esateko, inposizioz ezartzen zaigun zerbaiti aurre egiteko era bat dela uste dut. Zenbaitzutan bakarka, besteetan antolamendu baten baitan. Baina lerro hauek idaztearen zergatiak soldadutzarekin eta azken hamarkada honetan Euskal Herrian intsumituen mugimenduak hartu duen indarrarekin du zerikusia.

Ni neroni objektore izateko erabakia hartu nuen, intsumisioa ixilpeko edo kanporatu gabeko zerbait zen. Soldadutzari uko egiteko bide antolatu bakarra objektore bilakatzea zen. Noski, orduan ere bazen bere kontura objektatzen zuenik. Hau da, soldadutzari uko egin bai, baina sistemak inposatzen zuen nahitaezko soldadutzari aurre egiteko antolatze beharrik ikusten ez zuenik bazen. Baina, nora goaz horrela? Sistemari aurre egiterik ba ote dago beste era batera pentsatzen dugunok elkartzen ez bagara? Aukera berriak aurkezten ez badira?

70.eko hamarkadan soldadutzari ez, eta ordeko zerbitzu soziala egiteari bai edo ikusiko dugu pentsatzen genuenak gehienak ginen. Hamarkadaren lehen erdian objektatzea erabaki genuenok lehen urratsa eman izanarekin aski genuelako izango zen agian, baina askorentzan egiazki aski zen. Erabaki hori hartu izanak nahikoa buruhauste baitzekarren horrekin bakarrik. Baina 80. eta 90.eko hamarkadan intsumisioak indarra hartu du, eta nolako indarra gainera, Euskal Herrian.

Baina, galdetu al diozu inoiz zure buruari zergatik gertatu den hori? Zerk eraginda hartu duen hemen intsumisioak horrelako indarrik eta ez horrenbeste Espainiako erreinuan? Gibelean dauden arrazoiak desberdinak izan badaitezke ere, garbi dago bertako gaztediak Soldadutzari EZ eta Ordezko Zerbitzu Sozialari EZ diola nagusiki. Eta ez gaztediak bakarrik, mobilizazio sozial esanguratsua lortzen ari baita fenomeno honen inguruan. Dena dela, EZ da nahikoa eta EZta nahi adinakoa ere.

Azken galdera luzatu aurretik, sistemari aurre egiteko bide bakarra ez bada ere, egiten dena elkarlanean egitekoaren aldekoa nauzu irakurle. Eta atalaren izenburuak ongi adierazten duen bezala irakurle, Zer irizten?

# ika-mika

## Haur eskolako eskubaloiko jokalarien bilatzea

**A**zken urteetan haur ugari izan ditugu eskubaloian nola jokatu ikasten. Udarregi ikastolako gazte hauek astean zehar entrenatu, eta asteburuan partiduak jokatzen ari zuten zaizkigu inguruko ikaste-teen aurka.

Honez gain, eskubaloiko eskola honek beste ekimenik ere antolatu izan du. Irailean David Rodriguez eta Gurutz Aginagalde Elgorriaga Bidasoako jokalaria, eta Olatz Goenaga Cortebianco Bidebietako atezain usurbildar

rra ekarri genituen haurrekin egoteko. Hauek beraien esperientziak kontatzeaz gain, umeen galderak erantzun zituzten, zozketa bidez opari batzuk banatzearekin batera.

Hala ere, eskutitz honen bidez bi kezka edo behar agertu nahi nituzke. Alde batetik, azken 3 urteetan oraingo umeak bezala eskubaloian ibili diren guztiei deialdia egiten diet gordeta eduki ditzazketen kamisetak itzul ditzaten, oraingo gazteek jokatze behar baitituzte. Beste aldetik, lerro hauen bidez

Usurbildar guztiei dei egin nahi diet, haurrak kezkatuta baitaude, larunbat goizetan jendea beraien partiduak ikustera ez delako joaten.

## Jon Gallego. Eskubaloiko haur eskolako arduraduna



# GONZAI EHORZKETAK



Era guztietako zerbitzuak  
**EGUNEKO 24 ORDUETAN**  
Olarriondo, 5 - 8  
☎ 3621 63

# SALTXIPI



Txokoalde, z/g  
Usurbil

Tlf. 36 11 27 - 37 10 94

## PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42

## BALENTIN ALDALUR "Zialtzeta" Soinujolea



### Makina bat erromeria eta plazatan ibilia zara soinua jotzen.

Bai, inguruan beste soinujolerik ez zen, eta festa guztietara neu joaten nintzen. Urte batean, Pazkoatan, 13 lekutatik deitu zidaten.

### Zenbat urterekin hasi zinen?

17 urterekin hasi eta 55 arte gelditu gabe.

### Lehenengo emanaldia non egin zenuen?

Aiako Arizterrazuko ganbaran jo nuen. Igandero jotzen hasi nintzen eta 15 duro ematen zizkidaten jaiko.

### Soinua ere beharko zenuen.

Bai, halaxe da. Lehenengoa arto zaku bat saldu ondoren lortutako diruarekin ekarri zidan anaiak Donostiatik. Bigarrena, Arizterrazun igandero irabazten nituen 15 duroak aurreratu eta 14.000 errealetan erosi nuen.

### Norekin hasi zinen soinua ikasten?

Hasieran neure kasa eta gero Elgetarekin.

### Panderojoleen laguntza ere izango zenuen.

Bai, bat baino gehiagorekin aritu naiz. Horien artean Primi Erostarbarekin 24-28 urte egin

nituen.

### Bikote bat ala bestea izan, alderik ba al dago?

Bai, zerorren modukoa eta adinekoa baduzu, hobeto.

### Lehen panderojoleak bakarrik kantatzen zuen eta orain biek. Zer iruditzen zaizu hori?

Ondo. Gainera oraingoa "eleganteagoa" da. Beste instrumentuak ere sartzen dira eta, niretzat, hobeto gertatzen da.

### Soinua jotzeko modua aldatu da, beraz. Eta erromeriak?

Dudarik gabe. Lehen, bukatzeko ordua oso zorrotza zen. Errezilen San Antonetan, Ernioko arkaizetan eguzkia gorri-gorri zegoen artean, eta isildu egin behar. Jendea han gelditzen zen, baina ez zuten jotzen uzten.

### Erromeriatan, soinua jotzeaz gain dantza ere egiten omen zenuen.

Bai, hala da. Pieza jakin samarrak dantzatzen nituen. Jendea dantzan hasteko beldurrez egoten zen eta neu hasten nintzen animatzeko.

### 1980an Usurbilen eta 1987an Añorga eta

### Aginagan omendua zara. Geroztik soinua jotzen jarraitu al duzu?

Bai. Plazako azken saiok 1990an egin nituen Añorga eta Aginagan. Goizaldi Dantza Taldean ere ibilia naiz. Eta orain ere tarteka jotzen dut.

Zeruko txirrikitutik hara zer ikusi dugun! Zubietako Alamandegi baserriko teilatu berri dute eta txukun-txukun gelditu da.



Argazkia: EKAITZ

# Txirrikitutik

### Eraikuntzetarako:

Haritza Piñu Alertzea

### Altzariak egiteko:

Haritza Lizarra  
Gereiza Gaztaina



ZUMETA  
JABETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

### KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,  
bazkariaketafariak  
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"  
3.200 pta.

Zuenzaingeratzengara!

xabier  
antegia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78

## KALEBERRI



**Ines Kamino**

**A**zken urteetan bezala, aurten ere bi igandetik behin **musika** entzun ahal izango dugu **Usurbilgo frontoian**. Udaletxeak, Usurbilgo Gazte Asanblada eta herriko tabernari batzuen laguntzaz antolatutako ekimen honi joan den igandean, **hilak 17an eman zitzaion hasiera**.

Arratsaldeko seietatik aurrera izotz taldearen musikaz gozatzeko aukera izan genuen, baina eguraldiak eta Usurbilgo jendeak ez zun asko lagundu. Euria eta hotza




nagusi, eta jendeak dantzatzeko gogo haundiegirik ez. Izan ere, **frontoian oso jende gutxi**, dantzan ia inor ez eta jendea tabernetan sartuta. Aurrerantzean zerbait pentsatu beharko da jendeak dantza egin dezan. Gogoratu **dantzaldiak bi igandetik behin** izango direla herriko frontoian. Beraz hurrengo dantzaldia, abenduaren 1ean.

Dantzaldiak alde batera utzi, eta **Eguzkitzan** laister irekiko duten **denda berri** baten berri eman behar dut. Azken urte hauetan altzari denda egon den tokian, Ballesteros altzariak eta gero Angel altzariak,

orain, laister batean "**guztia ehun pezetatan**" delako **denda** ezarriko dute. Noiz irekiko duten ez dakigu, baina zuek lasai. Ireki behar dutenean izango duzue horren berri.

## URDAIAGA



**Leire Atxaga**

**B**aserrietan gero eta **asto gutxiago** dagoela ezin da zalantzan jarri. Garai batean baserri bakoitzean asto bat edukitzen zen gutxienez bertako eginbeharrak aurrera ateratzeko (arbia ekarri, belarra ekarri...)

Baserrietan aurrerapenak nagusitzen hasi zirenetik animalia hauek, **astoak** alegia, **desagertzen** joan dira **Urdaia gako baserrietan**. Honela, **gure auzoan asto bakarra** dugu, **Gilisasti baserrian** dagoen astoa hain zuzen ere. Aitzakia honekin **Albarito Uriñas** elkarrizketatzera joan gara:

-Noaua Albarito!

-Eupa neska, kaixo.

-Nola du izena asto kurioso honek?

-**"Bonita"** du izena. Benetan bonita gure astotxoa, horixe bai asto polita!

-Noiz eta nondik ekarri zenu ten?

-Baserriko lanak egiteko orain dela 6 urte ekarri genuen Zumarragako peritik.

-Eta zein lan mota egiten du?

-Udara partean jatenak eta etxeko eginbeharrak. Eta neguan Erriberatik arbia ekarri, eta askotan kolpe zorrik ez du jotzen neguaren eskusan. Jan ta lo egiteko nahiko denbora izaten du gure "bonitak".



Gure baserrietan **astoak gutxi** ikusiko ditugu aurrerantzean, izan ere makinaria berria egiten du apostu baserriarrak. Ba al dakigu zer kalte ekologiko egiten ari garen gure baserrietan?

**Usurbilen** gelditzen diren **asto gutxi horiek zaindu ditzagun**. Zenbat ote daude?



Baserrietan aurrerapenak nahi ditugu, baina astoak ere beharrezkoak izaten dira baserrietan. **Mila esker Albarito** eta **Santos** bere osabari beren astoaz hitzegiten eta idazten uzteagatik.


## TXOKOALDE



**Iñaki Labaka**

**A**zken aldi honetan zenbait haundikik Noaua! irakurtzen duela konturatu naiz. 4. alean **Txokoaldeko trenbide-pasaguneko hesiak** ondo ez zebilzala esaten genuen. Oraingoan berriz, berri ona. Orain dela aste batzuk bi gizon ibili ziren **konponketak** egiten, eta badirudi **arazoa konpondu** dutela. Ikusi egin behar orain zenbat irauten duten.

## SANTUENEA



Pako Agudo

**N**egua gero eta hurbilago dugunean, hotza eta euri jasak hasi dira jadanik. Joan den asteburuan egindako euri zaparradek utzi dute eraginik **Usurbildik Santuenerako bidean**. Euria egiten duen bakoitzean, bide horretan sortzen diren **ur putzuak** ez dira nolana nahikoak izaten.

**Bidean zehar putzuak** aurkitzen ditugu bata bestearen atzetik, eta kotxez pasatzera koan **arriskutsuak** izan daitezke. Bai **kotxean** doazenentzat, baita **oinezkoentzat** ere. Kotxez joatean ur putzuek ezustekoren bat eman diezaioke edonori eta oinezkoek kontuz ibili behar izaten dute busti ez daitezen.

Bestalde, zubi ondoan dagoen **jolaslekuan egurrezko hesi batzuk hautsirik** daude. Bertan jolasten egoten diren haurrak toki horretatik bidera irtetzen dira kotxerik badatorren begiratu gabe, eta hori **arriskutsua izaten da**. Ea ba konpontzen duten.

Amaitzeko, azaroaren 14an egin zen soldaduskarako zoz-



ketan auzoko bi gazte sartu ziren, eta biek inguru honetan egingo dute soldaduska.

## KALEZAR



Begoña Zubiria


**G**aur egun gazteok inorri laguntzeko borondaterik ez dugula askotan entzun izan dugu. Batzuk borondaterik ez badute ere, ez da hori gazte guztien kasua. Gazte guztiak ez dira berdinak izaten, eta



badaude borondate onekoak ere. Kalezarren dugu horietako bat. **Nikolas Bengoetxea Izeta** dugu berau. Urrian **Guatemalara** joan zen kalezartar hau hango **behartsuei nahiz laguntza behar dutenei laguntzera**. Bi hilabete eman-go ditu Guatemalan, bertako behartsuei laguntzen. Ziur asko, izango du nahikoa lan.

Guatemala alde batera utzi eta Harane futbol zelai aldera bidaiatuko dugu. Han, futbol partiduak daudenean kotxe ugari izaten direla ikusita, **aparkaleku antzeko bat** egin dute **futbol zelaiaren aldamean**. aparkaleku berri hori Haraneko aldagela etxearen atzean jarri dute. Hemendik aurrera futbol partiduak ikustera joaterakoan, kotxeak ez dira bide bazterrean utzi beharko.

## ZUBIETA



Xabier Arregi

**Z**ubietako Auzo-Batzarrerako ordezkariak aukeratzeko hauteskunde prozesuaren egunak finkatu dituzte dagoeneko Usurbilgo eta Donostiako udalek. **Abenduak 15ean** egingo den **hauteskunde**an sei kide aukeratu dira: Usurbil aldeko hiru zubietar eta Donostia aldeko beste hiru.

**Edozein zubietar** izan daiteke **hautagai**, zein bere aldean. Hautesleen zerrendak, iragar-ki-taulan erakutsiko dira udal bulegoetan nahiz Usurbilgo Lanbide Eskolan azaroaren 20tik 25era (biak barne). Egun hoietan erreklamazioak egiteko aukera izango da, horretarako dagokion udal bulegora joan beharko delarik.

Ondoren, behin betiko zerrendak azaltzean, **hautagaiak aurkezteko epea** hasten da, **azaroaren 26tik abenduaren 2ra**. Hautagaiak idatziz jakinarazi beharko diote beren nahia dagokion udalari. Abenduaren 3an beraz, hautagaien aldarrikapena egingo da, hauen kanpaina hasiaz.

Azkenik, **abenduaren 15ean, Zubietan, usurbilgo Lanbide Eskolan** egingo dira **hauteskundeak, goizeko 9:00etatik 13:00etara**. Bozketa botu-txartelen bidez gauzatuko da. Udal bakoitzak botu-txartel bana argitaratuko du, eta bertan hautagaien zerrenda jasoko da. Hautesleek bi aukeratuko dituzte, botu gehien dituzten hiru hautagaiak batzarkide bilakatuz. **Abenduaren 18an**, berriaz, **batzarkideen aldarrikapena** egingo da.

# H erorrek esan



**Ainhara Ullate**

Bizkarre

**O**ndo. Hala ere, orain gutxiago dantzatzen da, soilik 10, 12 urteko haurrak ateratzen dira frontoi erdira. Beste guztiak "poteatzen" ibiltzen dira. Nik ez dut dantza asko egiten, baina aukeran nahiago ditut taldeak erromeriak baino.



**Adoración Arcaya**

Olarriondo

**U**surbilen igandean ezin da ezer askorik egin, hilik geratzen da. Horregatik dantzaldiak ondo etortzen dira giroa sortzeko. Erromeriak atsegin ditut, baina zure lagunarekin batera dantzatzeko abestiak egiten dituzten taldeak ere ekarri beharko lituzkete.



**Pello Pikabea**

Aginaga

**I**gandeko talde hauek nahiko "kutre" geratzen direla iruditzen zait. Nahiago nuke larunbat gaue-tan joko balute eta ez igande arratsaldetan. Nik ez dut dantzarik egiten, beraz, ez zait axola taldea edo erromeria dagoen.



**Ainara de la Kruz**

Kaleberri

**N**iretzat nahi-ko "pobre" geratzen dira igandeko dantzaldiak. Izan ere, arratsaldeko 6etan norik dantzatuko du? Nik ez behintzat. Aukeratzekotan, taldea aukeratuko nuke, erromeria piskat zaharkitua geratu da eta.

**Zer iruditzen zaizkizu negu parteko dantzaldiak? Taldea ala erromeria nahiago duzu?**



**Raimundo Lizarreta**

Kaleberri

**O**ndo iruditzen zait horrelakoak egitea. Horrela jendea animatu eta giroa sortzen baita. Beharbada ni ere dantzara animatuko naiz. Bestetik, berdin zait erromeria edo taldea egotea, biak ondo daude.



**Arantxa Enetariaga**

Bizkarre

**N**i Usurbilera etorri nintze-nean, erromeriak egiten ziren igandero, eta orain ere horrelakoak gehiago gustatzen zaizkit. Uste dut dantzaldiena oso ideia ona dela giroa sortzeko, baina 17 18 urteko gazteak lotsatu egiten dira dantzatzeko garaian.



**Emilia Salinas**

Kaleberri

**O**ndo iruditzen zait honelakoak egitea gauz ez bada. Bestela, frontoi inguruan bizi garenok asko sufritzen dugu soinua dela eta. Arratsaldetan bada primeran iruditzen zait. Bestalde, trikitixa gustokoagoa dut beste "soinu" batzuk baino.

ANGULAK

**Juan Manterola**

1953

AGINAGA

Galardi etxea, z/g  
20.170 Usurbil

Tfno. 36 20 52  
Fax 37 02 63

**TXIRIBOGA**

TABERNA

*pintxoak eta bokatak*

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

**P A T R I**

**J A T E T X E A**

Eguneko bazkariak eta afariak

Nagusia, 6  
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil  
(Gipuzkoa)



## XABIER MIGUEL EZKERRA: "Garrantzitsua da herriarekiko lotura mantentzea"

**F**rancoren heriotza baino egun batzuk lehenago utzi zuen herria Xabier Miguel Ezkerra kalezartarrak. Bidasoako muga pasa zuenetik 21 urte igaro ditu, bizitza erdia, errefuxiatu, gartzelaratu eta asignatuta. Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan murgiltzeagatik ihes egin beharra izan zuen. Gu Donibane Lohitzuneko iftasertzean elkartu gara berarekin, eta urte hauei errepaso bat eman diegu.

**Nolatan alde egin zenuen herri-  
tik?**

Nire izena zuzenean jakin gabe nire atzetik zebiltzan, eta segurtasunagatik alde egin beharra izan nuen. Soldaduska ez egiteagatik alde egin genuela esan genuen, baina segurtasunagatik izan zen.

**Jende asko zegoen antzeko  
egoeran. Zerk bultzata?**

Garai hartan bi aukera zeuden: etxean lasai-lasai gelditu edo kezkarik baldin bazenuen, edozein mugimendu politiko-kultu-  
raletan sartzen zinen.

**Gogorra egin al zitzaizun hona  
ertortzea?**

Bai. Ez nuen inoiz pentsatu Franco hil ondoren egoera aldatuko zenik. Banekien luzerako izango zela. Nahiz eta Euskal Herrira etorri, zure txokoa uzten duzu, eta berriz hutsetik hasi behar.

Hala ere, gaur egun gauzak okerrago daude. Errefuxiatuek klandestinitatean bizi behar



dute eta beste batzuek atzerrian. Lehen bizitza normala egiteko aukera bazegoen, orain ez.

**21 urte daramatzazu Iparraldean, baina beti ez zara leku eta egoera berean egon.**

Ez. Hasieran Pabera joan nintzen, Euskal Herritik kanpora. 1986 arte izan nintzen bertan, 11 urte. Paperak banituen eta lana ere bai, egoera normalean nengoen. 86an atxilotu eta sei urtetarako kondenatu ninduten. Ia bost urtetan espetxe desberdinetatik pasa nintzen. Eta gero, Lillera asignatu ninduten.

**Zer da asignatua egotea?**

Kartzelatik atera eta kanporketarik edo estradiziorik ez baldin baduzu, beste bide hau dago. Inor ezagutzen ez duzun toki batera eramaten zaituzte, Euskal Herritik at. Astero polizia-  
rengana joan behar duzu paper bat firmatzera. Lan egiteko aukerarik ez duzu, ez gutxiengo laguntzarik, ezta seguritate

sozialik ere. Egoera ilegala da, baina horrela jokatzeko dute.

**95eko maiatzean Baionara etorri eta egoera horri amaiera eman zenioten.**

Bai, bizitza normala egitera etorri ginen 20 asignatu. Orain hemengo pertsonalitate batzuen etxetan gaude. Publikoki ateratzen gara, bada-kite non gauden, baina oraingoz ez dute ezer egin.

**Zer aldarrikatzen duzue?**

Euskal Herrian bizitza normala egiteko etorri gara eta egoera erregularizatzea eskatzen dugu.

**Zerbait onik bai 21 urte haue-  
tan?**

Jende asko ezagutzeko aukera izan dut eta harreman sendoak egin ditut.

**Eta Usurbil, nola ikusten duzu?**

Familiarekin, lagunekin, udal-  
txekoekin... mantendu dudan loturak asko lagundu dit horretan. Argazkiak, planoak... ikusi ditut, baina batzutan arazoak ditut ezagutzeko. Kalezar, adibidez, ikaragarri aldatu da.

**Itxura bai, baina giroa soma-  
tzen al duzu?**

Hori zailagoa da. Baina badakit ostiraletan "kristoren" giroa egoten dela, adibidez.

**Zer esango zenieke usurbilda-  
rrei?**

Orain dela gutxi independen-  
tziaren eguna ospatu da. Baina hori egunero egiten dela eta hor dagoela lana.

**Ainhoa Azpiroz**

**Josu Aranberri**

Senideren bat Usurbildik kanpo baduzu, **Noaua!**-ko bazkidetza oparitu iezaiozu eta hamabostero Usurbilgo berri etxean jasoko du.



## URTINEA LORATEGIA

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 36 22 55

## PORTUARRAK



## ITURGINDEGIA BAINUKO ALTZARIAK

Kale nagusia, 2-2-2D  
Tlf. Denda 36 46 37  
Etxea 36 52 99



# INSTRUMENTUEN ERREGE

**S**albatore elizan dagoen organoa Usurbilen dagoela 75 urte badira. Beharbada mezatan garelako askotan entzun izan dugu, baina ezer gutxi dakigu musika-fresna erraldoi honetaz.

Organoa 1907an egin zuen Parisen, Mutin Cavaillé-Coll-ek, Albert de l' Espeé baroiaren aginduz. Organo hau, bere perfekzioagatik, Frantziako hirugarren ederrena zen, Parisko Notre-Dameko eta Saint-Sulpice elizakoen ondoren. Baroiak arratsalde trumoisuetan jotzen zuen organoa bere gonbidatuen aurrean. Baina momentu batean, bizitzako gorabeheren ondorioz, saldu egin behar izan zuen eta Bastide izeneko doktoreak erosi zuen. Honek, organuaren pieza batzuk bakarrik nahi zituen, beraz, hauek hartu eta organoaren gainontzekoa Usurbilgo erretorea zen Guillermo Aranari saltzea erabaki zuen 27.000 pezetatan. Kontratua 1920koa da, baina bere muntaketa 1921. urtean amaitu zen. Organua ekartzeko, 17 gurdi erabili omen ziren. Eta berau jartzeko, Salbatore elizan bigarren koroa eraiki behar izan zuten.

## Berezitasunak

Organo honen berezitasunak aipatzekotan, lehenik aipatu behar da **haizezko instrumentua** dela. Organoaren tekla bat jotzean, motorra edo pedalen

bidez haizea eragiten da, eta haize hori balbula desberdinen bitartez tuboetara banatzen da soinua sortuz. Tubo hauek txirulak bezalakoak dira; bakoitzak bere tamainuaren arabera doinu bat edo beste dauka. **Luis Mari Ormaetxea, Organoaren lagunak** taldeko kideak adierazi digunez, "*organo honek 3.000 tubotik gora ditu*". Bertatik atera daitezkeen musika notak ere ez dira gutxi izango.

Baina organu honen berezitasun handiena **mekaniko-neumatikoa** izatea da. Hau da, Luis Marik azaltzen duenez, "*haizearen presioak mekanismo guztiak mugitzen laguntzen du. Organo barrokoak askoz ere gogorragoak dira jotzeko garaian, Usurbilgoarekin ez da hainbeste indar egin behar. Bestetik, **erromantiko estilokoa** da. Organoek berez ez dute soinuaren ozentasuna kontrolatzeko (ozenago, bajuago) ahalmenik pianoan bezala. Pianoan tekla suabeago jotzen baduzu, soinua ere ahulagoa izango da, eta*

*alderantziz. Organoarekin ezin hau egin*". Luis Marik azaltzen duenez, organo honek badu bere baitan aparteko beste kutxa bat. Bere barnean ere tuboak ditu. Kutxak, pertsiana bezalako batzuk dituzte. Pedalari emanez gero, pertsiana horiek ireki egiten dira eta ondorioz ozenago entzuten da, soinua irten egiten delako. Kutxa itxia dagoenean berriz, soinua moteldu egiten du bajuago entzunez. Luis Marik aipatzen duenez, "*honek soinuak neurtzeko aukera ematen digu*". Azken berezitasun bezala, beste organoak baino **tekla kopuru gehiago** dituela aipatu behar da.

Lehen aipatu bezala, organu honen 3/4ak soilik iritsi ziren Usurbilera. Horregatik, badauka oraindik tubo gehiago jartzeko tokia. Hasiara batean hiru tekaltu zituen, baina momentu honetan horietatik bi ditu. **Organoaren lagunak**-eko kideak azaldu digunez, beharrezkoa ikusten bada eta dirua baldin badago,

hirugarren tekla-tu hori osatuko dute.


## Instrumentu garestia

Izan ere, organu bat mantentzea oso garestia ez bada ere, konpondu beharrezko piezak erostea ez da batere merke ateratzen. Tuboak Alemaniatik ekartzen dira, eta horrek kostua



## EKITALDI UGARI ORGANOAREN 75. URTEMUGAN

Organoa Usurbilen dagoenaren 75. urtemuga ospatzeko, herriko lau musika talde bildu ziren (**Organoaren lagunak, Irrii abesbatza, Zumarte musika eskola, Txistulari taldea**). Elkarlanean hasteko garaia dela eta, koordinadora moduan lanari ekin diote urtemuga hau ospatzeko zenbait ekitaldi antolatuz. **Luis Marik** adieratzen duenez, *"bost kontzertuko zikloa antolatu dugu. Azaroren 22an hasi eta abenduaren 19an ekitaldi zentralarekin amaituko dugu. Esteban Elizondo eta Piotr Klemenski organujoleek kontzertu bana eskainiko dituzte, azaroaren 23 eta abenduaren 13an, hurrenez hurren. Hauetaz gain, herriko musika taldeek ere kontzertuak eskainiko dute.* Berritasun haundiena organu kontzertuetan egongo da. Beraren musikaz gozatzeko aukeraz gain, pantaila berezi baten bidez nola jotzen den ere ikusteko parada izango baitugu. Bestetik, organuaren historia azalduko duen bideoa ikusteko aukera ere izango dugu abenduaren 19an.



asko igotzen du. Organu honen konponketez Azpeitiko Bernal eta Korta arduratzen dira. Urtean bi aldiz etortzen dira musika tresna hau afinatzera, izan ere, hain instrumentu handia izanik eta hotz-bero ugari jasaten ditueneguz, segituan desafinatzen baita. Egin zaizkion azken konponketa garrantzitsuak duela zortzi urte egin ziren, guztia desmontatu eta berriro puzzle baten antzera eraiki zutenean. *"Erregistro berria jarri genion (tubo kolezio bat, beste soinu desberdin bat). 35 tubo jarri genizkion orduan, eta 150.000-200.000 pezeta tartean kostatu zen. Kontuan izanda organo honek 30-35 erregistro dituela, balio izugarria duela kon-*

*turatuko gara"*, esaten du Luis Marik.

Organo batek erregistro desberdinak dituela aipatu dugu lehen. Hau da, tronpetak, piano eta beste hainbat instrumentu (30-35 inguru) imita ditzake. Gaitasun hau dela eta askok **"instrumentuen erregea"** dela esan dute. Milaka tubo horiek eragiten dituzte doinu desberdinak. Egurrezkoak daude, estainuzkoak eta aleazio desberdinetakoak ere bai. Forma ere aldatu da mendeetan zehar. Usurbilgo organoak duen tubo haundienak **zazpi metro** inguru ditu. Txikienak, berriz, boligrafo baten tamaina du. 3.000 tubo hauek bata bestearen gainean daude jarrita, eta

guztira organo osoak 40 metro karratuko azalera du gutxi gora behera.


Organujole modura, Luis Marik organuak ematen duen jokua azpimarratzen du: *"konbinazio desebrdinak egin daitezke musika tresna honekin. Oso fuerte edo oso gozo jo dezakezu. Tinbre eta nabardura aldetik oso aberatsa da. Orkestra baten hainako ahalmena dauka. Luis Mari Ormaetxea eta Juan Luis Atxegaz gain, ordea, Usurbilen organoa jo duten beste pertsona batzuren izenak ere aipatu dizkigu Luis Marik: "Besteak beste, **Antton Aranburu** eta **Juan Mari Udabe** ere ibiliak dira musika-tresna izugarri hau jotzen".*

Idoia Torregarai

## MOYUAK ERAIKIKO DU FRONTOIKO ESTALKIA BERRIA

**F**rontoiko estalkia egiteko lehiaketan 13 enpresa aurkeztu ziren. Azkenean, guztien artean **Construcciones Moyuari** adjudikatu dio Kirol Patronatuak estalkia egitearen lana. 80 miloiko aurrekontua zen tope bezala jarritako dirukopurua, eta Moyuak **65 miloiko** aurrekontua egin du. Jadanik adjudikazioa egina dagoenez, nahi duenean has daiteke obrak egiten. Santixabel jaietarako amaitu beharko dute.

Aurrekontua 65 miloiko denez, eta patronatuak 80 miloiko bat aurreikusi zuenez, estalkian zinka erabili ordez kobrea erabiltzea pentsatzen ari da. Hau da, kalitate haundiagoko metala. Oraindik honen aurrekontua egitea falta da, baina badirudi kobrezko estalkia hiru edo lau milioi gehiago kostatuko dela.



## AUTOBUS ZERBITZUEN ARAZOA KONPONTZEKO BIDEAN DA

*"Autobus erabiltzaile usurbildarrek eta udaleko ordezkariak egin duten presioaren ondorioz, Eusko Tren enpresak autobus ordutegi berri baten proposamena egin du".* Hauxe esan zuten udal ordezkariak joan den azaroaren 14an **50 bat herritarrekin** egingo dako **bileran**. Hilabete batzuetan berririk gabe egon ostean, autobus ordutegia aldatzeko proposamena egin du Eusko Trenek.

Hasteko, **orain dela urtebete** zegoen **zerbitzu kopuru berdina** proposatu ddute, 27 hain zuzen ere. Usurbildik Donostiarako ibilbidean orduerdiro autobus zerbitzuak egongo lirateke, 12.05etatik 13.05era, 16.05etatik 17.05era eta 18.35etatik 20.05etara izan ezik Usurbila itzultzeko ere ia orduerdiro, 12.40etatik 13.40etara, 16.40etatik 18.40etara eta 19.40etatik 20.30etara kenduta, hauetan orduero izango litzateke.

**Proposamen honekin** herritar guztiak **ez zeuden ados, aginarrak** kasu. Izan ere, hiru

zerbitzu Usurbildik aterako dira Donostiara eta itzultzeko beste hiru zerbitzu Usurbilen geldituko dira, Aginagara joan gabe. Horrela, **aginagarrei zerbitzuak gehitu beharrean kendu** egin dizkiete.



Beste batzuk berriz, batez ere Michelinen lan egiten duten langileek, zenbait autobus zerbitzu Lasartetik pasatzea eskatzen zuten. Bileran bildutako herritar gehienek ordutegi berria lehengoa baino hobea dela esan zuten, nahiz eta batzuen onura besteen kalte-

an izan. Azkenean, **proposamen berri hau onartu** zuten herritarrek, baina hori bai, bozketarik egin gabe. Beraz, herritarrek Eusko-Trenek eman duen zerbitzu kopuruarekin ados ez badaude ere, baiezkoa emango zaio proposamen berri honi. Hala ere, **ordutegi berria indarrean ezartzerako urteberria gainean izango dugula** adierazi zuten Udaleko ordezkariak.

Bestalde, Udal ordezkariak aurreko ordutegia zela eta errekurtsua ezarri bazuten ere, proposamen berria onartzean erre-

kurtsua atzera bota beharko dute, eta berri bat jarri. Nahiz eta ordutegi berriari baiezkoa eman, herritarrek zerbitzu gehiago nahi dituzte. Horregatik errekurtsu berri bat aurkeztuko dute Udal ordezkariak, oraingoan proposamen berriari ezarria.



**A**urtengo **Behobia-Donostia** laisterketak marka guztiak apurtu ditu. 11.000 korrikalari izatez gain, **Juzdadok** errekorra hausteaz gain, usurbildarrek ere beren errekorra hautsi dute. Ez denbora aldetik baina bai partehartzaile kopurua ikusita. Izan ere, guztira **34 usurbildar** izan ziren azaroaren 10ean 20 kilometroko ibilbidea burutu zutenak. Denbora onena Olarriondo auzoko **Jaime Roldanek** egin zuen,



1h.20' 42" kronoarekin. Bigarren denborarik onena **Anbrosio Izagirre** aginagarrarena izan zen, ia bi minutura.

Aurten bai! Azken 6 urtetan usurbildar emakumerik helmugan izan ez badugu ere, aurten **Rosa Uribe** eta **Izaro Matxainek** proba amaitzea lortu dute. Lehenengoak 1h 32' 56"ko denborarekin amaitu zuen proba eta bigarrenak 1h 40' 16"-rekin. Zorionak guztioi!

**H**ilaren 18, 19 eta 20ean **HAtalluko** lurjabeek beren partzeleki zegoen dirua ordaindu zitzaizkien. Badira diru hori ukatu eta errekurritu dutenak ere. Hauei dagokien dirua, bitartean, Udalak jarri du. Horrela, hemendik aurrera **Inge-marrek** nahi duenean okupatu ahal izango ditu lurrak.

**A**ndatza Kirol Kultur **Elkarteak Aiako Harrietara** irteera antolatua zuen joan den azaroaren 17rako. Goizeko 7.30etan **15 lagun** bildu ziren, baina eguraldi txarraren ondorioz Oiartzun aldean bi orduko ibilaldia egin zuten. Hori bai, blai eginganda bueltatu ziren.

**U**daletxeko langileak **Euskara trebatzeko ikastaroa** egiten hasi dira. Ikastaroaren helburua administrazio arloko hizkuntza ulergarri eta zuzena erabiltzen ikastea da. Era honetan, herri-tarrekiko komunikazioa eta hartu-emank erraztu nahi dira.



**H**ilerriko sarreraren teiatua egoera txarrean zegoela eta, udaletxeko langileak hortxe aritu dira, jo eta su, azken egun hauetan konponketa lanak aurrera eramaten. Agian egokiagoa izango zen Santu Guztien egunerako konponketa lan hauek amaitzea, baina badirudi ez dela posible izan. Ezeren okerrik ez dela, eta eguraldiak laguntzen badu, laister batean amaituko dituzte aipatu lanak.



**Z**orionak Haimar. Izan ere, Haimar Zubeldia **Usurbildar** txirrindulariak denboraldi bikaina burutu du afizionatu mailan egin duen lehen urtean. Horren lekuko Egin egunkariak antolatzen duen Challengean lortu duen lehen urteko afizionaturik onenaren saria. Irudietan, joan den azaroaren 17an, David Etxeberria txirrindulari profesionalaren eskutik bere saria jasotzen. Bestalde, Joseba Zubeldia bere anaiak, orain arteko bi ziklo kross probetan bigarren egin du jubenetan.

## KIROL KOPLA



### Haritz Urdanpileta

Denboraldia aurrera doa-kigu poliki-poliki.

Azken aste bukaeran eguraldi hotz eta euritsua izan badugu ere, kirolei dagokionez gauzak bero-bero ibili dira. Honela bada, usurbildar kirolariak ez zaizkigu hoztu, emaitzei begira jartzen bagara behintzat.

Orain arteko kirol koplak ikusita kirol nagusia futbola dela atzeman dut, horregatik alde-rantziz hasteko erabakia hartzea ez zaiuze gaizki irudituko. Lehendabizi zorionak **Joseba Zubeldiari**. Gipuzkoako Txirindularitza Federazioak, datorren urtean Donostian egingo den Munduko Txapelketari begira, prestakuntza berezi bat aurrera eramateko aukeratu-duelako.

Bestalde zorionak **Pako Infante "txiki"**ri, usurbildar saski-baloilarien asteburu beltzean dizdira egin zuen izarra izan baitzen. Nahiz eta bere taldeak 61-98 galdu, berak 37 puntu egin zituen. **Eutsi mutilak**, garaipenaren ateak gertu dituzue eta.

**Eskubaloian** ostera, denetarik izan dugu. 2. nazionalean gure taldeak 20-20 berdindu zuen Zarautzen aurka. Nahiz eta denbora luzez aurretik joan, amaieran berdinketa markagailuan. Euskal Ligan berriz txuria eta beltza. **Jubenilak indarrez**, neurketarik galdu gabe, eta **kadeteak makal xamar**, partidu bakarra irabazita.

Amaitzeko futbola, eta **Kontxako hondartzan** gainera. **Aginaga Sagardotegiak** jokatu-tako **bi partiduak irabazi** baititu. azkena 2-6 El Turista taldearen aurka. Bide egokia hartu dute egungo txapeldunak.

## PELOTA GOZOAREKIN EMAN ETA EMAN

**U**rriaren 4an hasi zen lau t'erdia barruko eskuz binakako txapelketa amaierara heldu da. Datorren igandean, hilak 24an, jokatuko dira Aitzaga Elkarreak antolatzen duen txapelketa-zen azken partiduak. Txapela eskuratu nahian **Koldo Lertxundi eta Inaxio Arruti alde batetik eta Haritz Urdanpileta eta Oidui Usabiaga bestetik**.

Aurten, inoiz baino lehenago iritsi zaigu amaierara lau t'erdia barruko txapelketa hau. Ez bikote gutxi egon direlako, frontoiko estalkiaren berrikuntza lanek behartuta txapelketa aurreratu egin delako baizik. Guztira 15 bikote izan ziren izena eman zutenak, eta 3 taldetan banatuta ostiralero pelota hotsa nagusi izan da Usurbilgo frontoian.

Azkenean, eta iazko txapelketa-ekin alderatuz ezusteko final erdiak izan genituen joan den azaroaren 15ean. Orain arte jokatu diren bi txapelketen irabazleak, **Joxe Antonio Labaien eta Iñaki Rekondok**, bi urte partidurik galdu gabe egon ostean, final laurdenetan galdu zuten **Koldo Lertxundi eta Inaxio Arruti**ren aurka.

Ondoren bikote honek 22 eta 15 irabazi zien finalerdietan **Eneko Arregi eta Iñaki Labaieni eta Haritz Urdanpileta eta Oidui**

**Usabiaga**ren aurka jokatuko dute azken partidua, hauek 22 eta 18 nagusitu baitziren **Hernani eta Paulino Ibargoien**en aurka. Galtzaileek berriz, hirugarren eta laugarren postua izango dute jokoan igandean.

Finala jokatu duten bikoteek azken partidua gogorra izango dela uste dute. Biak ondo prestatuta daude, eta



urduritasunak pasara txarrik egiten ez badie behintzat neurketa ederra ikusi ahal izango dugu Usurbilgo frontoian. Faborito argirik gabe apustuak pere-parean daude.


Txapelketa osoan giro ezin hobea izan da pelotarien artean. Nork ez ditu txalotu **Kerman eta Markelen** pelotakadak, **Santxo eta Jonen** ahaleginak, **Jon Mikel eta Joxe Mariren** ilusioak, **Aintzi anaien** dejadak... Ezin ahaztu **Josu Rekondo-Txitxo, Pellejero-Iribar, Paulino-Josu, Elexpe-Alduntzin eta Gorka-Pottok** egin duten txapelketaz. Guzti hauek merezia izango dute azken partiduen ondoren egingo duten bazkaria.

Eta noski, antolatzaile eta epaileek ere bai. **Jose Luis Elexpe, Enrike Huizi eta Unai Loidiren** jarduna ere ez baita txantxetako izan.

**Josu Aranberri**



## USURBIL INTSUMITUA TALDEA HAZIZ DOA URTEZ-URTE



**I**ntsumisioaren indarra gero eta handiagoa da Usurbilen. Horixe esan digute

Usurbil intsumitu taldeko kideek. Izan ere, Usurbilen baditugu soldaduskari uko egin diten intsumisoak, eta azken bi urteetan hainbat herritar epaitu dituzte arrazoi hori dela eta.

Usurbilgo intsumitu taldea nahiko berria da. Orain dela bost urte, 1991ko azaroan, zenbait intsumitu usurbildar lehen aldiz bildu ziren soldaduskarako zozketa egiten zela baliatuz. Garai hartan helburu bakarra zuten: intsumisioaren alde zerbait egitea. Honela, lehen aldi hartan bost intsumitu eta objetore izandako bat bildu ziren: **Iñaki Calleja, Gonzalo Bruño, Juan Antonio Barcenilla, Joxe Mari Izeta, Luis Mari Ormaetxea** eta **Eustakio Arrojeria**, azken hau objetore izana.

**Luis Mari Ormaetxeak** intsumituaren dioenez garai hartan intsumisioa eta orohar antimilitarismoa ez zuen jende askok ezagutzen. *"Honetaz ohartu ginenean lanean hasi ginen Usurbilen intsumisioa zuzpertz nahian. Hasiera batean gazteekin bilera batzuk egin genituen intsumisioaren inguruan, eta ondoren zine forum antzeko pelikula ziklo bat ere anto-*

Usurbilgo intsumisoak 1991. urtean elkartu ziren lehen aldiz. Orduan 6 ziren. Orain, 40 intsumiso inguru aurki ditzazkegu Usurbilen.



*latu genuen".*

Garai hartatik gaur egunera intsumitu taldearen ustetan gauzak asko aldatu dira. Taldea sortu zenean intsumisioaren inguruan zalantza ugari zituzten. Gauzak ez zituzten garbi ikusten. Lege aldetik nahastea zen nagusi eta intsumituek ez zekiten kartzelara eramanez izango ziren ala ez. 1989ko legearen eragina ez zen oraindik gauzatu eta intsumituen artean beldurra nabari zitekeen. Orain ordea, kartzela zigorra baino kode penal berriari beldur haundiagoa diote. Hala ere, herritarren babesa gaur egun haundiagoa dela nabari dute.

### 37 intsumiso inguru usurbilen

**Aitor Landaluze** eta **Oskar Uribe Usurbil intsumitua** taldeko kideek esan digutenez momentu honetan 37 intsumiso inguru daude Usurbilen. *"Guk zenbatu ditugunaren arabera 37 intsumitu gara Usurbilen, baina gehiago egotea ez dugu baztertzen.*

*Baliteke bat edo beste gure kalkuluetatik at gelditzea. Gainera azpimarratzekoa da adin ezberdineko jende ugari dagoela. Intsumisioak azken urteetan indar haundiagoa hartu badu ere, Usurbilen adin ezberdinetako jendea topa dezakegu. Hala ere soldaduskara zenbat gazte joaten den, zenbat objetore dauden, prorroga eskatuta zenbat dauden ez dakigu. Beraz, Usurbilen intsumitu dexente garelako esaten badugu ere, hori erlatiboa da".*

### Kondenatu bai, kartzela ez

Usurbildar intsumituen egoera ezegonkorra da momentu honetan. 20 gazte inguru epaitu dituzte jadanik, baina **Aitor Landaluzek** bakarrik dastatu du kartzelako egonaldia. Besteak, berriz, berrien zain. Batzuk kondenatuta, besteak indultoa noiz eman zain, eta beste batzuk epaiketari itxaroten kode penal berriaren itzalean.

Aurrerantzean zer asmo duten Intsumitu taldekoek? Batez ere jendearen kontzientziazioa. Jendeak ulertu dezala zergatik diren intsumiso eta babesa eman diezaiela. **Aitor Landaluzek** dioenez, *"Usurbil intsumitu taldeak ez du zertan intsumisoz bakarrik osatua egon behar, edozein izan liteke intsumitu: soldaduska egin dutenak, emakumeak, gurasoak...".*

**Josu Aranberri**

Joan den azaroaren 16an parodia bat egin zuten Usurbilgo intsumiso taldekoek. Bertan, soldaduskarako zozketan sartzeko txartelak banatu zituzten.



# SOLDADUSKATIK INTSUMISIORA

**S**eme!, soldaduskara joatea beharrezkoa da gizon egiteko. Han erakustsiko dizute zer den ona eta zer txarra. Orain umea besterik ez zara, soldaduskatik etortzean gizona izango zara.

Honelako arrazoiak urte askotan entzun izan dira gure etxeetan, eta oraindik ere nonbait esango dira. Urtez-urte, soldadutzaren aurkako ahotsa indartzen joan bada ere, oraindik beste bost urte igaro beharko dute Ejerzito profesional Español delakoa sortzeko.

Bien bitartean, azaroan soldadutzara joateko zozketak egiten jarraitzen dute, eta aurren ere ordenadoreak egin du bere lana. Joan den azaroaren 14an egin zen zozketa, eta bertan ezagutu zuten beren destina 23 usurbildarrek. 1972. urteko Eguzkitza auzuneko bat zen zaharrena 1972. urtekoa eta gazteena Kaleberriko beste bat, 1979ko kintakoa.

Zozketaren emaitzak ezagututa, 21 usurbildarrek "Región Pirenaica" delakoan egingo dute soldaduska. Bi gaztek ordea, ez dute zorte haundirik izan. Bi hauei, **Iñigo Villafafila** kasu, soldaduska Espainiako penintsulatik kanpoko kuartel batean egitea egokitu zaie, Ceutan hain zuzen ere. Etxealdiako gazteak zera zihoen, "ia gehienei hemen eta niri tokatu behar hara joatea. Ni ez noa" zaie. Hala ere, Usurbilgo intsumitu taldeak zozketan sartu diren guztiei eskutitz

banan bidaliko die intsumiso egiteko gonbitearekin. Izan ere intsumiso egitea ez da batere zaila. Aitor Landaluze usurbildar intsumisoak dioenez, *"soldaduskara joateko noiz eta non egon behar duten eskutitz bat iritsiko zaie lehenengo. Ondoren, soldadutzara joan baino laupabost egun lehenago beste eskutitz bat eta bidaia egiteko txeketa. Gurekin harremanetan jarri, eta eskutitza nahiz txeketa egokitu zaion kuartelera bidaltzen da, ukoaren arrazoiak argitzen dituen testu batekin batera"*.

Euskal Herrian gazteen %15a intsumitua da. Baina badago gazteen beste zati handi bat, %60a, kontzientzia eragozpenaren bidea hartzen duena. Honen bidez, gazteek soldaduska egin beharrean borondatezko Ordezko Zerbitzu Soziala egiten dute. 30 elkartek ematen dute aukera hau, hoiaren artean Gurutze Gorria eta Euskal Herriko Pelota Federazioak... Azken honek gazteei soldaduska egin beha-

rean haurrei pelotan erakusteko aukera ematen die.

Bestalde, oso arrunta da gazteen artean soldaduskara ez joateko luzapena eskatzea. Horretarako ikasten ari direla edo eta lanean ari direla egiaztatu behar izaten dute.

## Usurbilgo Udala EUDIMAN.

Euskal Herriko hainbat udal lek, Usurbilgoa barne, udal intsumituak izatea erabaki zuten, Euskal Herri ez militarizatu baten aldeko apustua eginenez. Guztien ahaleginak biltzeko sortu zen Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatea (EUDIMA). Honela, Usurbilgo udalak, intsumisioa, usurbildarrek duten eskubidea, promozionatu, bultzatu eta defendatzen du. Horretarako desmilitarizazioaren alde sensibilizatzeko eta bultzatzeko ekintzak eratzten ditu, ordezko Zerbitzu Soziala udal zerbitzuetan finkatzea ukatu du, eta ejerzitoarekin ez du kolaboratzen.

Josu Aranberri

**Euskal Herrian jende asko soldaduskari ihesi ibiltzen da. Horren lekuko dira 7.000 intsumituak eta 6.345 objetoreak**



# Ekaitz

## Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87

oiartzun

# MAHUKA



GAZTE DENDA

Orain, neguko  
püntako m

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06





Oraingo honetan herriko tokiak utzi eta beste era batetako lehiaketa bat proposatuko dizuegu:

## Argazkian agertzen diren hiru neska eta hiru mutilen izen-abizenak nahi ditugu jakin.

Erantzunak abenduaren 2a baino lehen bidali behar dituzue helbide honetara: **Noaua!** aldizkaria, Kale Nagusia 27, 20170 Usurbil. Edo beste-la, gure buzoira bota ditzakezue. Asmatzaileen artean **Tragoxkan** afaria zozketatuko da.



Ez dakigu **Julian Zarautz** dagoeneko **ANTXETA JATETXERA** azaldu den afaltzera edo ez, baina ziur gaude gustora gertuko dela afaldu ondoren. Eta guzti hau Gilisasti baserria non zegoen erantzuteagatik bakarrik!

Gure buzoiko erantzun kopuruari begiratuz gero, argi geratu da herri honetan baserriez arteaz baino gehiago dakigula. Izan ere, aurreko alean proposatutako lehiaketa jende gutxiagok parte hartu duzue.

**Zumetak** frontoiaren atzealdean egin zuen mural izugarria duela 23 urte izan zen, **1973. urtean**, hain zuzen ere.

Erantzun hau eman duzuenok asko izan zarete, baina saria **Xuriñe Olasagasti** eta **Ohiane Zubeldiak** irabazi dute. Beraiek izango dute **ZUMETA**n otordu ederra egiteko aukera.

## ajerako kondarrak

### LANPOSTUAK

⇒ **Albizturgo Udala. Udaletxerako administrari eta Kultur Etxeko dinamizatzaile** bat behar dira lansaio erdirako. Eskerak aurkezteko epea: 96-11-25. Informazio gehiago: G.A.O. 213 zenbakia (96-11-5).

⇒ **Mutrikuko Udala. Aldi baterako idazkari kontuhartzaile** bat behar da. Eskerak aurkezteko epea: 96-12-05. Informazio gehiago: G.A.O. 221 zenbakia (96-11-15).

⇒ **Arrasateko Udala. Peoi** bat behar dute. Eskerak aurkezteko epea: 96-12-03. Informazio gehiago: G.A.O. 219 zenbakia (96-11-13).

✓ **SOS! Noaua!**ko langileok hotzak akabatzen ari gara! Gure lokala berotuko duen berogailu bat gustora hartuko genuke. Beraz, etxean soberan edo bazterrean erabili gabe duzun gailua ez bota! Guk gustora hartuko dugu eta gurekin harremanetan jar zaitezke.

✓ **Giltza sorta bat galdu** nuen Kaleberrin. Lau giltza ditu. Inork aurkitu baditu, dei dezala 360321 telefonora.

Zerbait saldu, erosi, trukatu edo esan nahi baduzu, hemen duzu zure tartea.

# GALARRA GARRAIO

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL



**AZAROAK 22 ostirala**

- **Organoa Usurbilen dagoe-la 75. urtea** ospatzen dugun honetan, herriko musika koordinadorak **Zumarte Musika Eskolako irakasleen kontzertua** antolatatu du. Arratsaldeko **18.00etan Salvatore elizan.**

**AZAROAK 23 larunbata**

- **Organoaren urteurrena ospatzeko**, herriko musika taldeek antolatuta, **Esteban Elizondo organu-jolearen kontzertua. Salvatore elizan** arratsaldeko **19.45etan** lehen zatia eta **20.45etan** bigarrena.

- Jubeniletako **eskubalo**

partidua (N): **Usurbil K.E.-Urnietako.** Arratsaldeko 16.00etan.

- **Eskubalo**i partidua kadete mailan (M): **Usurbil K.E.-Urdaneta.** 17.30etan.Loiun.

- Usurbilgo Amnistiaren aldeko Batzordeak **Preso bat EGIN bat!** harpidetza afaria. Aitzagan 21.00etan.

**AZAROAK 24 igandea**

- **Organoaren urteurrena** ospatzen dela eta, **Txistulari taldearen kontzertua** entzuteko aukera izango dugu. **Dema plazan,**

13.00etan.

- Bigarren jubeniletako **futbol** partidua (M): **Urniet-Usurbil.**

- Bigarren jubeniletako **futbol** partidua (M): **Usurbil-Danena.**

- **Futbol** partidua (N): **Usurbil-Urretxu/Zumarraga.**

- **Eskubalo**iko bigarren nazionalako partidua (N): **Usurbil K.E.- S.D. Pulpo Z.K.P.** 18.00etan.

- **Saskibalo**i partidua senior mailan (M): **Usurbil S. T-Irurok (Aloña- Mendi).** Oiardon 11.30etan.

- Aitzaga Elkarteak antolatuta, **Eskuz pilotan binaka 4 t'erdiko finalak.** Kiniela ere antolatutu dute: emaitza asmatzen dutenen artean **Tragoxkan afari** bat zozketatuko da.


**AZAROAK 25 astelehena**

- **Euskal Herria Askatu!**-ren **konzentrazioa** errotondan. Arratsaldeko 20.00retan.

**AZAROAK 27 asteazkena**

- **Guraso Eskolak** antolatuta, **MENOPAUSIA** gaiari buruz hitzaldia egongo da Udarregi Zaharrean arratsal-

Udal Liburutegian **ipuin kontaketa.** Kontalaria: **Ixabel Agirresarobe.** Arratsaldeko **18.00etan.** 5-8 urte bitarteko haurrentzat.



# enda

deko 18.00etan. Hizlaria:  
Otalora ginekologoa.

## AZAROAK 29 ostirala

- **Arrate Zahar** egoitzan **Mus Txapelketa** jokatu da.
- Kontxako hondartzan **futbol** partidua (M): **Aginaga Sagardotegia- Eguzkiaren lagunak**. 10. zelaian, goizeko 9.40etan.
- **SENIDEAK**en manifestazioa arratsaldeko 20.00retan.

## AZAROAK 30 larunbata

- **Areto** futboleko partidua lehenengo mailan (M): **Antxeta Taldea- Axular Lizeoa**.

## ABENDUAK 1 igandea

- Bigarren jubeniletako **futbol** partidua (M): **Usurbil-Ostadar**.
- Bigarren jubeniletako **futbol** partidua (M): **Lizardi Institutua- Usurbil**.
- Bigarren Kadetetako **futbol** partidua (M): **Usurbil- Sp. Herrera**.
- Futbol partidua (N):



Astebuetan, Udarregi ikastolako haurrek **eskubalo**i, **saskibalo**i nahiz **futboleko** partidua*k* izaten dituzte **Oiardo** kiroldegian

### Elgoibar- Usurbil.

- **Saskibalo**i partidua senior mailan (M): **C.D. Kostkas-Usurbil S.T.**

### ABENDUAK 2 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**-ren **konzentrazioa** errotondan. Arratsaldeko 20.00etan.

### OHARRAK

- ✓ Aurreko alean Usurbilgo Udalak prestatutako ikastaroari buruzko datuak **oker** eman genituen. Hori dela eta, zuzenketa egitea beharrezkoa dugu. Hona hemen datu zuzenak:

### Sukaldaritzako sakontze

**ikastaroa** 1996ko abenduaren 23tik 1997ko apirilaren 18arte luzatuko da. Ikastaroa **94-95 eta 95-96** ikasturteetan **Lanbide Hastapenean** aritutako **ikasleei** zuzendua dago, eta **dohainik** izango da.

- ✓ **Usurbilgo Euskal Herrian Euskaraz** taldeak **42** zenbakia duen **postakutxa** zabaldu duela jakinarazi nahi dizue herritar guztiei. Beraz, **euskararen aurkako erasorik** salatu nahi baduzue **edo beste edozein ohar eman**, bertara zuzendu zaitezkete.

## BAZKIDIE TXARTELA


5.000 PEZETAKO URTE OSORAKO

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

H A M A B O S T E K A R I A  
**Noaua!**



**DAGOENeko**  
**BAZKIDE DITU**  
**Noaqua!-k**



**Zure bultzada ere**  
**ezinbestekoa**  
**du**

**EGIN**  
**ZAITEZ**  
**BAZKIDE!!**